

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen prestakuntza sustatzeko prestazio ekonomikoa

BDNS (Identif.): 843123.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/-convocatoria/843123>).

Xedea

Deialdi honen xedea da gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen prestakuntza sustatzeko laguntzak emateko modua arautzea.

Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke Legutioko udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, baldin eta udaleko gizarte zerbitzuarekin gizarteratze prozesu batean badaude.

Betekizunak

Udalerrian erroldatuta egotea.

Gizarte bazterketaren hasierako diagnostiko soziala edukitzea.

Aurrez aurreko ikasketetan matrikulatuta dagoela egiaztatzea.

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Zenbatekoa joan etorrien kostua izango da.

Eskaerak eta dokumentazioa

Eskabideak eredu ofizialaren arabera egin behar dira eta bertaratuta nahiz Legutioko Udalen egoitza elektronikoaren bidez (www.legutio.eus) aurkeztu daitezke.

Legutio, 2025eko ekainaren 30a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTÁZAR